

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

'Fighting for American' Euskal Herrian?

Estatu Batuetako hauteskunde bezperan BBCren dokumental guztiz gomendagarria ikusi dut. Euskal ikuspegitik sinesgaitza dirudien fenomeno bat aztertzen du: emakume gazte ultraeskuindarrak. Erreportaje honetan erakusten dena zeharo irrigarria eta aldi berean oso kezagarria da, biak batera. Umorezko pelikula bat bezala ikus litezke pasarte batzuk... dena benetakoa ez balitz.

Hiru protagonista nagusi ditu dokumentalak. Bata youtuber-instagramer-tiktoker arrakastatsua da, familia tradizionalaren apologia egiten duena; emakumearen rol bakartzat, ama, emazte eta sukaldari izatea. Beste gazte nerabe batek sari bat jaso du transpertsonen aurkako manifestazio bat antolatzeagatik, eta 16 urterekin mitinak ematen hasi da: gurasoek etxean hezi dute, ez eskolan, funtsean Bibliarekin, horrekin baino ez. Beren pentsamenduaren zutabea hau izanda, gizonarekiko erabateko mende-kotasuna eta emakumeei boto-eskubidea kentzea planteatzen dute lotsa izpirik gabe. Berririo diot, sines-tezina dirudi, baina gertatzen ari da.

Hirugarren protagonistak Christie Hutcherson du izena eta pauso bat harago eman du. Bere buruari eman dion misioa arriskutsuagoa da, zuzenean parapoliziala. Mexikoko mugara joaten da, batez ere Arizona aldera, Estatu Batuetara sartzeko harresia zeharkatzea lortzen duten migratzaileak detektatzeko eta salatzeke. Denaren berri ematen du, ahal dela zuzenean, milaka jarraitzailearentzat, "Women fighting for American" izeneko kanal baten bitartez. Lehen sekuentzian, etorkinen kanpaleku batean sartzen da, baimenik, errukirik eta damurik gabe; gero, GKE solidario bateko kideak jazartzen ditu; eta, azkenean, atxilotuta amaituko duen venezuelar baten

«ehizan» parte hartzen du, poliziakideen ondoan bera ere korrika ibiliz.

Layla Wright kazetariaren lana (hauek hirurak bezain gaztea, eta emakumea) itzela da, bikaina. «Ultraeskuinarekin zer egin» eztabaidari –ezkutatu edo ikusarazi– erantzuna ematen dio, bide batez. Kasu honetan, behintzat, argi dago onena errealitatea bere gordintasun osoz islatzea dela. Ezezagunari dion jatorrizko beldurrak bultzatuta jokutzen du Hutchersonnek (Afrikaren aipamenak berak amesgaiztoak eragiten dizkio). Hortik, gezur handi bat sortzen da: etorkin guztiak terroristak dira. Eta guztia gorrotoan amaitzen da, gorroto hutsean. Era berean, gezur be-

Munduan diren Christie Hutcherson guztiak ez dira ezerezetik sortzen: euskal hiri bateko auzo batean pitz daitezke eta erakundeen utzikeriarekin puztu, eta gero damutzeko berandu izango da

rriekin elikatzen da gorroto hori: aho zabalik geratzen da Wright, bere aurrean zuzeneko emisio batean Hutchersonnek 150 migratzaile atxilotzea lortu duela ziurtatzen duenean, hesiaren beste aldean hiru bakarrik daude eta.

Gure irizpideek Estatu Batuetan asteartean gerta dai-tekeena aztertzeke ez dutela inolaz ere balio ondorioz-tatzen da BBCren dokumentala ikusita. Baina, batez ere, justiziaren, berdintasunaren edo egia-aren beraren aldeko borroketan atzera metro bat bera ere ez egiteko gonbita da. Christie Hutcherson guztiak ez batira eze-rezetik sortzen eta puztu: euskal hiri bateko auzo ba-tean txiroen aurkako kontzentrazio baten bidez pitz daitezke, eta erakunde-axolagabekeriarekin ahal-dundu. Eta gero oso berandu izango da damutzeko. •